Imanol Alvarez
IRAKASLEA

# Homofobia

1995eko amaiera aldera, Estatuko talde gay-lesbiano guztiok manifestazioa egin genuen Madrilen, legealdia bukatzear zegoela, kanpainan eginiko promesa bete zezan eskatzeko Felipe Gonzalezen gobernuari: bikote-legea gauzatzea. Deialdiaren nondik norakoak erabakitzeko azken batzarra Bilboko EHGAMen egoitzan izan zen, eta bertan, besteak beste, Pedro Zerolo (egun Madrilgo Udalean zinegotzi eta PSOEko Gizarte-Mugimendu eta GKEekiko Harremanetarako Idazkaria) egon zen, garai hartan elkarte bateko presidentea zen heinean. Bileran, EHGAMek proposatuta, agiriaren izenburua *Homofobiaren aurka* izan behar zela, eta lehen puntuan bikote-legearen ordez, ezkontzeko eskubidea exijitu behar genuela ebatzi zen. Zerolo ezaguna da, dituen karguengatik ez ezik, bere burua aurkezten duelako sexu berekoen ezkontzen aitzindari. Inor gutxik daki, ordea, bilkura hartan sutsu jo zuela ezkontza aldarrikatzearen kontra, hala nola *Homofobiaren aurka* leloaren beraren kontra ere, Espainian (sic) ez omen zegoelako homofobiarik.

Gutxitan kontatu dut anekdota hau jendaurrean, baina gaur harira dator. Izan ere, guk, ehgamkideok, urtero urrezko hirukiarekin batera, trapuzko espartina "saria" ematen diogu homofobia nolabait adierazi duen lagun edo erakunde bati. Gurean homofobia badagoela ukaezina da, munduko beste leku askotan bezain latza ez bada ere. Aitortu behar dut, alabaina, erasoak eraso, aurten arazoak izan ditugula hautagai esanguratsu bat aurkitu ahal izateko. Orain pare bat hilabete ez genuen izen bakar bat ere buruan. Halako batean, aldiz, hasi zitzaizkigun metatzen. Lehenengo, Alcalako apezpikuak merezimendu denak egin zituen, TVEn esandakoengatik, infernura bidaltzen baikintuen *homosexual* guztiok. Asper eginda gaude, ordea, horrenbestetan eliza-gizonei abarketa eman izanaz; ondorioz, nahiago genuen beste norbait bilatu. Hortik gutxira, *Intereconomía*n, mota guztietako askatasunei egin ohi dizkieten erasoez gain, perla ederrak bota zituzten homosexualitateaz, gotzaina defenditu nahian. Hautagaia bageneukala uste genuenean, horra hor heldu zen Wert ministro *peperoa* eta markak hautsi zituen, irainak bota beharrean –irainak, azken batean, hitzak dira eta haizeak ei daramatza–, ekintzak plazaratu baitzituen: Hiritartasunerako Hezkuntza irakasgaiari, izena aldatzeaz gain, izana ere aldatu dio, besteak beste, homofobia gaitzesten zuen atala eta askatasun afektiboei buruzko aipamen oro kenduz. ■

IÑIGO AZKONA

Gutxitan kontatu dut anekdota hau, baina gaur harira dator. Guk, ehgamkideok, urtero urrezko hirukiarekin batera, trapuzko espartina *saria* ematen diogu homofobia nolabait adierazi duen lagun edo erakunde bati

TXANDAN

Andoni Mujika

# Arrasateko Azoka

Dimentsio handia daukan proiektua logika komunitario autoeratutik abiarazi dute Arrasaten. Une honek daukan alternatiba egarriari alternatiba batek eman nahi dio edaten, pentsamendu eta praktikaren iturritik. Kontua da Arrasateko azoka birpentsatzeko ekimena martxan jarri dutela Arrasateko Udalak eta Bagarak, hainbat eragilerekin batera. Azoka biziberritzeko eta kontsumo ohiturak eraldatzen laguntzeko espazio bat irudikatu nahi dute kolektiboki. Horrez gain, beste hauek ere lortu nahi dira: eragileak egitasmoaren subjektu bihurtzea (50 eragilek baino gehiagok egin dituzte ekarpenak); udalgintzan esperientzia berritzailea aktibatzea (udal teknikariak, zinegotziak, herri-eragileak eta Bagarakoak elkarrekin lanean jarriz); eragile eta herritarren arteko harremanak harilkatzea; eta azkenik, estrategikoak izanik ere, bigarren mailan geratzen diren arloei (tokiko eta bidezko merkataritza, elikadura, hurbileko nekazaritza, produktu ekologikoak, jolasgune eredu berriak…) ikusgarritasuna ematea. Zorionak Arrasate, eta Debagoiena, beste behin ere gizarte berrikuntza laborategia izateagatik. ■